

# ...eta **kitto!**

804 zkia. 2012-V-4

ASTEKARIA

## **HARKAITZ CANO** **idazlearekin** **solasean**

# **EUKi**

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea  
943 20 42 99

**AUTOAREN ASEGURUA**  
*preziorik onenean*





RPS 04/02

# IRAZABAL

---

## clínica dental

**Antonio Murillo  
doktorea**

- PERIODONTZIA
- INPLANTOLOGIA
- AHO-KIRURGIA


**Ainhoa Zulueta  
doktorea**

- ODONTOLOGIA OROKORRA
- PROTESIAK
- ESTETIKA


**Susana Sierra  
doktorea**

- ORTODONTZIA
- OKLUSIOA

*Invisalign ortodontzia ikusezina*



*Incognito mihi-ortodontzia*



## Ortodontzia estetikoa eta ikusezina

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostegunera: 10-14 eta 16-20h / Ostiraletan: 10-14 eta 15-19h

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com) - [info@clinicairazabal.com](mailto:info@clinicairazabal.com)

## Inoiz ez da azkarregi heziketarik onena jasotzeko.

Ohun urte baino gehiagotan Aldatze Zabalik heziketan erreferentzia izan da. Gure inguruko beharrei erantzuteaz, garapenera -pedagogia, Azkuntzak, teknologia berriak, EFCW...- izan dira gure zira onenak guzti jarraitu dituztenak.

### MATRIKULA ZABALIK Batxilergoko modalitateetan

Case Management  
Management, Informatika  
Biologia  
Ekonomia  
Artsak



HEZKETA INTEGRALA ETA KALITATEZKOA KRISTAU HUMANISMOAN OINARRITUTA

ALDATZE IKASTETXEA MENDI OHO BAT HEZTEN

ELEKTRONIKAZ

ZURRIKETA, TIRA BIRATZEKO INSALE, NESKA-MUTILAK

AZKEN 15 URTEETAN SELEKTIVITATERO FROGA 14 ISURK GAINDITU DITUZTELANIK

IRASLEEN BAHARAKO JARDUA DENA

ESKOLAKO ETA LANERKO ORDUTEGIAN BATERAGARRI EGONTEKO ZEHHEZTU ESKANTZA

*aldatze*



**ALDATZE**  
Centro Santo María  
de la Providencia

Alameda 4 - 48100 Sopuerta  
tel. 943 79 11 33 [info@aldatze.org](mailto:info@aldatze.org)



## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**IPURDIKO.-** Ipurdian hartutako kolpea. "Berrito egiten badozu, ipurdiko bat emongo detsut". Bestelako kolpe handia. "Izotzetan laban eginda ipurdiko ederra hartu dau". Zentzu figuratuan ere izan daiteke. "Lege harekin, ipurdiko ederra hartu eban armerxiak".

**IPURDIKO ZULO.-** Gaztelarazko 'ano'. "Aguazillak andrakume handiki batzueri, ondo egin gurarik, traban zebizen mutiko batzuen kontura: -Hamengo umiak edukaziñua, ipurdiko zulan!".

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkarte  
**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11 - solairuartea  
20600 Eibar  
**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18  
**FAXA:**  
943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**  
erredakzioa@etakitto.com  
komunikabideak@etakitto.com  
publizitatea@etakitto.com  
**Elkartearen E-MAILak:**  
elkartea@etakitto.com  
normalizazioa@etakitto.com  
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu  
Maider Aranberri  
Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi  
Silbia Hernandez  
Koldo Mitxelena

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**  
Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi  
**ARGAZKI ARLOA:**  
Leire Iturbe, E. Belar  
eta S. Hernandez

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia  
Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu  
Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Harkaitz Cano

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

8.000 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

**ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen al-  
dizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## ESKUTITZAK

### TANTANEZ TANTAN, EIBARREN EUSKERAZ BIZI

Oin dala lau urte Gantxillaren ekimenarekin hasi giñan, *Tantanez tantan Eibarren euskeraz blai* lempian. Herrixan euskeriaren olatua Urkuzutik Untzagarriño eruatia lortu genduan zueri esker.

Izan dira Eibarko euskalgintzak azken urtiotan egindako hainbat ekimen: Egunkariaren aldeko mobilizaziñuak, Korrika... Gure kaliak jendez betetzen erakutsi dogu eibartarrok euskeraz bizitzeko dakagun gogua. Halanda be, oindiok asko dogu egitteko gure herria euskalduntzeko. Eibarren euskeraz bizitzeko euskal komunidadia garanok Eibar euskalduna berriro eraiki bihar dogu. Hori lortzeko moduetako bat kalera urtetzia da, holako ekimenak eginda, gure nahixa herriko lau bazterretan esatera.

Hori dala-eta, batu gaittezen guztiok: euskalgintza, ikastetxe, herriko kirol talde, musikari, artista, beste erakundiak, ume, gazte, guraso, heldu, nagusi... eta egin deigun bidia! Aurten be, maiatzaren 19xan, Gantxillarekin eta tantanez tantan, euskeraz bizi gura dogula esateko aukeria izango dogu.

Horretarako, gonbidatu nahi zaittugu maiatzaren 9xan, arratsaldeko 19.30xetan, Kulturalian egingo dogun aurkezpen batzarrera etortzera. Bertan zihertzuko dogu talde bakotxa non egongo dan ibilbidian.

Horrekin batera, ekimenian parte hartzera be gonbidau nahi zaittugu, kaleratu deigun barriro be euskeraz bizitzeko dakagun gogua!

EIBARKO EUSKALGINTZA

### ZUZENKETA

Txarto-ulertze bat tarteko, Roberto F. izenarekin kaleratu beharreko eskutitza Ainhoa Lendínezen izenean argitaratu genuen. Horrek hainbat nahaste ekarri ditu,

beheko eskutitza horren adibide. Barkatu hankasartzeak sortutako ondorioak.

ERREDAKZIOA

### AUTOKARABANAK DIRELA-ETA

Azkenaldian autokarabanan inguruan argitaratu diren eskutitzak direla eta, gai hau argitu asmoz idaztea besterik ez zait geratzen. Kontu honek iritzi kontrajarriak sortu ditu eta, dirudienez, gaiak nirekin zerikusia duela uste izan du hainbatek. Horregatik, honen bidez argi eta garbi utzi nahi dut gutun horiek ez dutela ez nirekin ez nire enpresarekin inongo zerikusirik. Are gehiago, iruditzen zait norbera libre dela autokarabana nahi duen lekuan aparkatzeko, jabeek horretarako ordaintzen baitituzte (gainontzeko ga-

rriobideek bezala) udal zergak. Eta horrek kalean aparkatzeko eskubidea bermatzen duela uste dut. Autokarabana parking pribatuan uztea aukera bat baino ez da. Eta ez inondik inora, halabeharrez inposatutako zerbait. Hori guztia argituta, espero dut gaia bere horretan geratzea. Esan bezala, nik ez baitaukat aurreko asteetan idatzi denarekin inongo zerikusirik. Ezta interesik ere.

Besterik ez.

MIKEL S.

asteko

HEMEROTEKA


esaldiak

"Inork ez du protesta egiten ingelesa inposatzen diotelako, jendea konbentzitu dutelako beharrezkoa dela. Espainian lan egiteko ez da beharrezkoa ingelesa; askoz beharrezkoagoa da euskara. Gure unibertsitatean ere ikastaroen programak espainieraz eta ingelesez daude. Baina horko ingelesa izugarri txarra da, eta edozein ingelesdunek barre egiten du. Barregarri geratzen ari gara eta konturatu ere ez!

(Juan Carlos Moreno, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko hizkuntzalari)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

## Astelehenian ekingo detse Nagusixen Hamabostaldixari

**GAUR EGUARDIXAN PRESENTAU DABE PORTALEAN PERSONA NAGUSIXEN XIX. HAMABOSTALDIXA** eta ekitaldixan bertan omenaldixa egin detse Biztu alkartiari laguntasuna eskintzen jardun daben hainbat lagunerari. Astelehenian ekingo detse programaziñuari, 16.00etan Untzagan hasiko dan Juan Luis Mugerezaren omenezko eta Azittaiñeraiñoko ibilaldixarekin. Hurrengo



egunian, barriz, Olitera txanguan juango dira horretarako izena emon dabenak. Hillaren 10ian jokuak izango dira protagonista: goizian, 11.00etatik aurrera toka, pentanka eta igel-toka txapelketia jokatu dabe Ipuruu bolatokixan eta arratsaldian, barriz, 17.00etan hasiko da mahai-jokuen txapelketia Untzagako jubilaue txian. Hillaren 11n atzera be eskursiñua ekingo dabe: Eibarren tren hartu eta Orioraiño juango dira parte-hartzera animatzen diranak (izen-emitia hillaren 7ra arte egongo da zabalik, jubilaue

etxietan). Maiatzaren 12xan Egogain Gerontologia Zentruak dantzaldixa hartuko dau 17.00etatik aurrera. Eta hillaren 14n herribazkarixa (paellia) eta dantzaldixa ekingo dira Legarreko frontoian (izen-emitia jubilaue etxietan egin leike, maiatzaren 10era arte). Eta hamabostaldixa agurtzeko, maiatzaren 15ian txokolate-jana eskinduko dabe San Andres egoitzan.



## Presuen aldeko ekitaldixa

**EIBARKO HERRIRAK DEITTUTA, HILLEROKO MARTXIARI JARRAITTUTA**, apirilke azken barixakuan herrittar morduak eskatu eben presuen oiñarrizko eskubidiak errespetatzia eta sakabanaketa-politikiarekin amaitzia. Hain zuzen

be, Eibarren ez beste herri askotan egiti zittuen horrelako ekitaldixak barixakuan, presuerei bisitan juandakuendako bereziki baltza izan dan asteburuaren atarixan; izan be, kartzelara bisitan zoiazela, lau isripitan hainbat lagun zauritu dira.



Andres Egiguren ganbera orkestiak Coliseua bete eban zapatuan. / LEIRE ITURBE

## Bonbardaketaren ingurukuak segiduko dabe

**APIRILLIAN GURE HERRIXA BONBARDATU EBELA 75 URTE BETE DIRALA GOGORATZEKO** programaziñuak maiatzian be jarraipena izango dau. Programak jasotzen dittuan ekitaldixak interes handixa piztu dabe eta, bestiak beste, Jesus Gutierrezek aurreko astian emondako hitzaldixa aste honetan, eguaztean errepikatu bihar izan dabe, lehelengo saiuan Portalea txiki geratu zalako. Horrekin batera, bixarko antolatutako hiri-ibilaldixak be herrittar morduaren interesa eragiten ebala ikusitta, antolatzailliak hori be errepikatzia erabagi dabe: maiatzaren 13an (domekan) ekingo da bigarrenez. Partehartzia errazteko, Udalaren Kultura sailian izena alde aurretik emon biharko da, 943708435 telefonuan (09.00-

etatik 14.00etara) edo, bestela, cultura@eibar.net helbidera emaila idatzi. Programian aurrera eginda, datorren astian, martitzenian, Francisco Javier Muñozek "Euskal Herrian erakitzea. Eibarko Berreraikuntza 1937-1957" Juan San Martin bekiari esker berak landutako ikerketa biharraren gaiñeko hitzaldixa eskinduko dau (euskeraz) Portaleko areto nagusixan, 19.00etatik aurrera.

Bestalde, barixaku gabian bota eban eurixaren eragiñez, Untzagan eskintzekua zan "Itxaropena" ikuskizuna bertan behera laga bihar izan eben eta beste egunen batian eskintzeko daguazen aukeriak aztertzen dihardue. Zapatuan, bestalde, Coliseua bete eben Pedro Palacinek zuzendutako Andres Egiguren ganbera orkestiak eskindutako kontzertura juandakuak.

## Lana billatzen laguntzeko ikastaruak

**UDALAK ETA LANBIDEK, BIHAR BILLA DIHARDUENERI LAGUNTASUNA ESKINTZEKO** asmuarekin, hainbat ikastaro antolatu dittu hille honetarako. Datorren astelehenetik aurrera hasitta aurreikusittakuak "Eficiencia energética en las instalaciones de iluminación interior" (34 ordu) eta "Telefonía sobre IP (ToIP) asterisk" (12 ordu) dira eta bixak Armerixa Eskolan eskinduko dittue. Informaziño gehixagorako edo izena emoteko 943203244 telefono zenbakira deittu leike edo, bestela, www.lanbide.net webguran sartu.



## Santa Kurutzeko jaixak asteburuan

**ATZO IZAN ZAN SANTA KURUTZ EGUNA, BAIÑA OHI-TTURARI JARRAITUTA**, asteburuan pillatu dittue programaziñua osatzen daben ekitaldixak, holan jendiak parte hartzeko aukeria izan deixin. Bixar 10.30xetan kanpai-errepikarekin hasiko dittue ospakizunak eta jarraixan, 11.00etan mezia ospatuko dabe Santa Kurutzeko ermittan, Gorosta eta Mandiola auzuetan hildakuak goguan. Meza-ostian haiketakua hartuko dabe eta eguardixan Juan Mari Narbaiza bertolarixaren eta Jone Ostolaza eta Unai Andonegi trikitilarixen saiua hasiko da. Ixa batera haurrendako jolasak eta auzoko gaztiendako herri jolasak hasiko dira eta horretxek amaittuta, 14.30xak aldera Ixua jaxetxian batuko dira, bazkaltzeko. Bazkalostian nahi dabenak




Sokadantzia egingo da aurten be, domekako meziaren ostian. / LEIRE ITURBE

Jon Ostolaza eta Unai Andonegi trikitilarixak eskinduko daben erromerixan dantzan jarduteko aukeria izango dau.

Eta jaixak domekan segiduko dau: 11.00etan Santa Kurutzeko ermittan mezia ospatu eta urtetxian piskolabisa eskinduko dabe. Egurdixan soka-

dantzia dantzatuko dabe, Kezka dantza taldekuak eta Usar-tza txistulari bandakuak lagunduta. Jone Uria eta Miren Gisa-sola trikitilarixen emanaldixa eta haurrendako jolasak amaittuta, 14.30xak aldir kanpai-errepikarekin agurtuko dittue aurtengo jaixak.

## Manifestaziñua eta bazkarixa Maiatzaren Lehenian



**MAIATZAREN LEHENAREN HARIRA HAINBAT EKITALDI ANTOLATU ZITTUEN** sindikatu nagusixak eta aurten LAB-ek eskualde osorako manifestaziñua Eibarren egiñ eban. Martitzen egurdixan Untzagatik urten eban manifestaziñuan esaldi diferentxiak idatzitta zeken pankartak zabaldu zittuen. Manifestaziñua amaittu eta ordezkari sindikalen interbenziñuen ostian, udaletxeko arku-pietan giro paregabian herri-bazkarixa egiñ eben ehundik gora lagunek.



## autuan

### SANJUANAK PRESTATZEN


Jaixak Herrixak Herrixandako alkartxiak, jai eredu alternatibo eta parte-hartaziillia sortzeko dakan helburuari jarraituta, San Juan jaixetarako jarduerak antolatzen juateko asteroko batzarreri ekin detse. Nahi dabenarendako irekixak diran batzarrak barixakuero egingo dira, 19.00etatik aurrera Montekasino tabernaren parian, eta herritarrak bertan parte hartzera animau nahi dittue.

### HERRI URRATS

Maiatzaren 13an ospatuko da Herri Urrats Senperen eta bertara juateko autobusa antolatu dabe. Urteeria 09.30xetan izango da eta bueltia 19.30xetan. Txartelak 9 eurotan dagoz salgai ...eta kitto!-ko buleguan.

### ERRESKATE-JARDUNALDIXA

UCAS de Arrate erreskate-txakurrekin diharduen boluntarixoko taldiak ekaiñaren 9rako jardunaldixa antolatu dau. Iaz lau egunetako jardunaldixa egin zan, baiña aurten egun bakarrerako presupuestua dake. Oinguan be beste toki batzuetatik etorrittako erreskate-taldir parte hartuko dabe.



## MERTXE VITORIA LECUBE

-ARMAND AGUER-EN ALARGUNA-

(2012ko apirilaren 25ean hil zen, Benidormen)

*“Urak dakarrena urak daroa,  
zuk emandakoa gurekin geratzen da”*

ZURE FAMILIA

**asteko**  
**67**  
**datua**

millioi ume dagoz munduan eskolara juan barik. Hori salatzeke egin barri dan Hezkuntzaren Aldeko Kanpainaian 80 eskolatako ikasliak hartu dabe parte, tartian Aldatze eta La Salleko 23 neska-mutillek.



**Diabetikuendako programiaren presentaziñua**

**EGUAZTENIAN, 11.00-ETAN HASI ETA 13.00-A BITTARTIAN PAZIENTE AKTIBUA PROGRAMIAREN** presentaziñua egingo dau Osakidetzan horrekin arduratzen dan Estibaliz Ganboak. Jardunaldixa batez be mellitus diabetesa dakeneri eta euren senide eta zaintzaillieri begira antolatu dabe. Presentatzera datozen programia auto-zainketiari eta gaixuen hezkuntza-proiektuari lotuta doia eta ikastaro moeta bi hartzen dittu, bakotxak bere gai-xotasunari aurre zelan egiñ ikasi deixen.

**Deba hondartzako TAO gunia martxan**


**MARTITZENIAN IPIÑI EBEN MARTXAN DEBA-KO HONDARTZAKO TAO GUNIA**, hondartza pareko Nafarroa Plazako aparkalekuan. Maiatze-ko eta irailleko lehelengo hamabostaldixan, zapatu, domeka eta jaiegunetan ordaindu biharko da bertan aparkatziagaittik eta ekaiñaren 1etik abuztuaren 31ra bittartian, barriz, asteko zazpi egunetan, astelehenetik domekara. TAO indarrian egongo dan ordutegixa 09.00etatik 20.00etara bittartekua izango da. Debako Udaltzainguak aditzera emon dabenez, gitxieneko egonaldixa ordu erdikua izango da eta gehxienezko egonaldixa, barriz, 5 ordukua. Ordaindu biharrekkoa, barriz, ja-



rraixan emoten dittugun tarifen araberakua izango da: ordu erdi 0'85 euro; ordubate 1'70 euro; ordu bi, 3'40 euro; 3 ordu, 5'10 euro; 4 ordu, 6'80 euro; eta 5 ordu, 8'50 euro.

**Moda desfilea egingo dabe El Corte Inglés-ian hillaren 18xan eta 19xan**

**NESKA GAZTIENDAKO UDABARRI-UDAKO BILDUMA BARRIXA EZAGUTZERA EMOTEKO ASMUAREKIN**, moda desfilea egingo dabe El Corte Inglés-ian maiatzaren 18xan eta 19xan, 18.00etan hasitta. Easy Wear, Formula Joven, Boomerang eta Green Coast etxien arropak erakusten aurretik egindako casting-ian aukeratutako neskak jardungo dabe eta desfilea ikustera jua-teko tokixak mugatuak diranez, jua nahi dabena inbitaziñua eskatu biharko dau merkataritza zentroko bigarren pisuan.



**Alfakuak protestan segitzen dabe**

**ALFAKO BIHARGIÑAK MANIFESTAZIÑUAN ZIHARKATU EBEN HERRIXA** eguaztenian, zuzendaritzaren jarrera salatzekeo protestan. Izan be, bihargiñeri soldatak bajau detsez, "horren gaiñian bihargiñekin adostasuna lortzeko bildu barik". Gauzak holan, eguaztenian eta atzo greba egiñ eben hainbatek eta, horrekin batera, bestiak beste autokarabania osatuta eta alkarretartzia eginda euren protestarekin segidu eben atzo. Gaiñera, eguazten arratsaldian bertan enpresa buruak bihargiñekin batziari uko egin zetsalla jakiñ eben eta horri erantzuna zelan emon pentsatzen dihardue bihargiñak.



**LUCIA AÑIBARRO ISASTI**  
(2010eko maiatzaren 5ean hil zen)  
**II. URTEURRENA**

**“Ez zaitugu sekula inoiz ahaztuko”**  
ZURE FAMILIA



Krisixaren ondorixoz murrizketak egitten dihardu estatuko gobernuak hainbat arlotan; horren artian, hezkuntzan. Holan, Jose Ignacio Wert ministrurak proposatzen dau klase bakotxeko ikaslien kopurua %20xan haunditzia. Bere berbetan, "neurrixa umien arteko sozializaziñuandako da".

## Geletako ikaslien kopurua haundittuzko zenduke?



**IVANA PIZZI**  
23 urte  
ikaslia

Neri begittantzen jata gela gehixago ipiñi biharko leukiela, gela bakotxian umiak bata bestiaren gañian ipintzia baiño. Gela batian ume asko badagoz, gatxagua egingo jako pertsona bati hori dana kontrolatzia.



**GAIZKA ARANZETA**  
46 urte  
aholkularixa

Pentsatzen dot geletan gero eta talde txikixagua egon, irakasliak atenziño onagua eskinduko de-tsela ikasliari. Hori da logikak esaten dabena. Gure sasoiari 45 ume geguazen klasian eta punta batian ume bat lo egitten trankil egon ahal zan, irakaslia ez zalako konturatuko.

**MARI CARMEN CASTRO**  
54 urte  
ume-zaintzaillia

Uste dot hobe dala geletan ikasle kopuru txikixa egotia, 20tik ez pasatzia, batez be umiak txikixak diranian. Nagusixekin, tira, euren kabuz moldatzen dira hainbat gauza egitteko, baiña txikixekin euren gañian egon bihar zara eta hori gatxa da gela batian ume asko badagoz.



**JOKIN ROKANDIO**  
27 urte  
langabia

Holako neurri bat hartzia atzerapena dala begittantzen jata. Ez daka zentzurik eta ez dakit zeintzuk diran hori egitteko erabilittako atxakixak, baiña diru-kontua izango da seguru. Beti esan izan da hobia dala geletan talde txikixak egotia; horri jarraituta, neurri hau okerrerako da.





# ATE IREKIAK

Inskripzio epea zabalik!



<b>Goi Eskola Politeknikoa</b>	<b>Arrasate MAIATZAK 12</b> laruntata, 10:30
<b>Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea</b>	<b>Eskoriatza MAIATZAK 26</b> laruntata, 11:00
<b>Gastronomia Zientzien Fakultatea</b>	<b>Donostia MAIATZAK 26</b> laruntata, 10:30



902 110 436

www.mondragon.edu/iea

*Espainiako Kritikaren Saria (euskarazko narratibaren arloan) besopean duela etorriko da Harkaitz Cano Eibarrera. Twist eleberriarekin lortu du garaikurra idazle lasartearrak, euskal literaturaren harribitxietariko bat dela distiraz erakutsiz. Eibarren, ordea, beste nobela bat izango du mintzagai, Belarraren Ahoa. 2004an argitaratutako liburu horren gainean literatura solasaldia eskainiko du Canok Juan San Martin liburutegian hilaren 9an, eguaztena, 19.00etatik aurrera.*

**- Belarraren Ahoa (El filo de la hierba) liburuaren literatura solasaldia egingo duzue liburutegian. Liburuan, Hitler II. Mundu Gerraren garaile azaltzen da, Manhattan konkistatzeko asmoarekin. Historia aldatzeko ahalmena du literaturak?**

Liburukoa ukronia da, ingelesez 'what if' deitzen den literatura litzatekeena, hau da, ea zer gertatuko litzatekeen historian gauza bat aldatuko balitz. Liburu nahiko karnabaleskoa da, ez dauka zerikusirik lehenago egin ditudan gauzekin. Pieza nahiko arraroa sortu zen. Parisen nengoen bolada batez, han II. Mundu Gerraren inguruan barrren-kezka halakoa zegoen, publikazio asko zegoen gaiari buruz, 2002an Charles Chaplini buruzko pelikula berrestreintatu zuten, eta inpultsu horietatik sortu zen liburua.

**- Badago, gaur egun, liburuan agertzen den bezalako 'Gizon Txikirik' (hau da, Adolf Hitler-ik)?**

Gaur egungo gizon txikiak ikustezinak dira. Benetan agintzen dutenek, azkarrak direnek behintzat, ikusi dute ez dela euren aurpegia ikusterik komeni. Atzean hariak mugitzen dituztenak ez dakit gizon handi edo txikiak diren, baina ikustezinak seguru.

**- Belarraren Ahoa zure aurreko lanekin apurtzen zuen liburua izan zen moduren batean, baina arrakasta izan zuen.**

*"Irakurlea derrigorrezkoa da, baina ezin du idazlea baldintzatu"*



## HARKAITZ CANO, IDAZLEA

# "Solasaldiak euskal literaturaren 'kutxa beltzak' dira"

Ni ere ezustean harrapatu ninduen liburuak. Harritu egin ninduen ni liburu hori idazten hasi izanak, eta hori ere polita da.

**- Eibarren irakurleekin solasaldia egiteko aukera izango duzu. Antzeko saiorik egiteko aukera izan duzu aurretik?**

Liburu horrekin euskaraz solasaldi nahi egin nituen, baina Eibarkoan gaztele-raz egingo dugu. Pentsatzen dut gaztele-raz pare bat alditan ere egin dudala solasaldiren bat. Liburuak baditu urte batzuk eta normalean horrelako solasaldietan liburu berriak lantzen dira. Alde horretatik, gogoratu egin beharko dut zer idatzi nuen (barreak). Bere sasoi saio asko egin nituen eta baliteke bere inguruan solasaldi gehien egin dudana liburuaz izatea.

**- Nolakoak izaten dira solasaldiak?**

Normalean aurkezpen laburra egiten dut eta gero 'disco dedikatuen' zatira pasatzen gara, jendeak galderak egitera, gustoko edota ez gustoko gauzak komentatzera, ulertzen ez dutena galdetzera, iluna gertatu zaiena argitzera... Alde horretatik estimagarria da. Irakurle bakoitza mundu bat da eta bakoitzak bere interpretazioa egiten du lanarekin. Niretzat horrelako solasaldiak erresistentzia guneak dira, euskal literaturaren 'kutxa beltzak'. Hau da, Euskal Herrian horrelako 30 tertulia badaude, bakoitzera 10-15 lagun badoaz, hor 400-500 lagun daukazu, oso aktiboak, liburu bat irakurtzeko eta modu kritikoan aztertzeko konpromezua daukatenak. Hori ezin da gutxietsi.

**- Beharrezkoa da idazle eta irakurleen arteko hartu-emana?**



Bai, baina ezin duzu idatzi irakurlea kontentatzeko bakarrik. Niri irakurleek asko erakutsi didate euren komentarioen bitartez eta zu kontziente zara zerbait idaztean hainbat irakurle sumindu egin daitezkeela, baina bakoitzaren estilotik eta obsesioetatik elikatu behar duzu. Irakurlea derrigorrezkoa bada ere, ezin du idazlea baldintzatu.

**- Hala ere, irakurlean pentsatzen duzu idazterako orduan?**

Nik irakurle batzuetan pentsatzen dut eta horri 'buru batzarra' deitzen diot. Buruan hainbat irakurle ditut, imaginarioak batzuk, hildako idazleak beste asko, baita lagunak ere. Idazten ari naizen bakoitzean batzar hontako batek eskua altsatu eta esaten du: "Hori ez zait gustatzen". Nolabaiteko tranpa da, ez direlako benetako irakurleak, baina horrek laguntzen dit.

**- Twist izan da zure azken eleberria. 80. hamarkadan dago kokatuta eta 1975. urtekoa zara zu. Nolakoa izan da denboran atzera egindako bidaia hori?**

Hor 'anai-arreba zaharren disko kolezio efektua' deitzen diodana dago. Hau da, gauza bat da zein urtetan jaio zaren, baina zuk handik haratagokoa ezagutzen duzu. Istorioa 1983an kokatzen da, nik 8 urte nituenean, baina adin horrekin munduaren pertzepzioa badaukazu, sasoi hartako Errealaren ligak gogoratzen dituzu, gizarte mailan gertatzen ziren gauzak, soinuak, usainak... Beste gauza bat da ez duzula gauzen interpretazio politiko-ideologikoa egiten. Ez dakit zenbateraino ez



Datorren eguaztenean izango da Harkaitz Cano gure artean, Juan San Martin liburutegian.

## *"Twist nobela idazterakoan, atzera elikatzeko, urtebete pasa dut 1983an bizitzen"*

den abantaila hori. Atzera elikatzeko, urtebete pasatu dut 1983an bizitzen. 1983ko Egin egunkari guztiak lortu nituen, 12 liburukitan eta, gaur egungo egunkaria irakurtzearekin batera, egun horretako 83ko egunkaria irakurtzen nuen.

**- Errealitate bi bizi izan dituzu, orduan, momentu berean.**

Bai, horrelako murgiltzea egin nuen. Iku-si izan dut, horrela, gauza batzuk ez direla aldatzen, beste batzuk okerrera aldatzen direla... bitxia izan da esperimendua.

**- Fikziozko istorioa da Twisten jorratzen dena. Baina errealitatearekin identifikatu daiteke?**

Bai. Atzean dagoen abiapuntua, 'jatorrizko mina' deitzen diodana, oso-oso identifikagarria da. Nik azaltzen dudana bezala, pertsonaiak fikziozkoak dira, baina gertaeretakoa asko 80. hamarkadan benetan gertatutakoak dira. Orduan, gertaerak oso identifikagarriak dira, nahiz eta gertaera horiek katalizatzeko erabiltzen ditudan pertsonaiak fikziozkoak izan.

**Ketosa 2010** *bulego eta instalazioen materialak*  
*akaberrak, azkarrak, inozerenak, fidagarriak.*  
**bulego materiala**  
**enpresetan banatzen dugu**  
 Euzkoan kalea, 12  
 48900 Eibar  
 Tf: 943 21977 / 943 21978  
 Fax: 943 21968  
 www.ketosa2010.com

**EGOITZA NAGUSIA**  
 Zuberoa 20 - bidea, eskuma

**MUGICA FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba  
**Tanatorio eta Erusketak labeak**  
 Egokorak (lizeo poligonak)  
 Partikular: eskua eta begira erretze zentralak  
 Sotoak - Sakelak - Urtarainoak erretze  
 Eskalariak eta beste erretzeak  
 Nafar eta Nazioarteko irratizkoak

**Mugica Ehorzketa**  
 (Euzkoan eta Ibañan)

**TELEFONOA [24 ORDU]**  
**943 201 951**

**Isadi**  
**LORADENDA**

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

**Radio Eibar**  
**CADENA SER**  
**104,0 FM**

*Eibarko Casinua sortu zala 100 urte bete ziran martxuaren 30ian eta mendeurrena ospatzeko lehelengo ekitaldixa asteburu honetan, etzi, egingo dabe. Egunero ez dira ehun urte betetzen eta, horregaittik, urtian zihar, beste jarduera batzuk antolatuta, Casino Artista Eibarrés dalakuaren 100 urteko historixia ospatzen segitzia pentsatzen dabe. Gaur egunian Casinuak dittuan etxe bixak, Ibarkurutzequak eta Eibarko Bizikleta Plazakuak, 450 bazkide dakez eta hórretako askok bat egingo dabe domekako ekitaldixan.*



## 100 urte Ibarkurutzera begira

**S**an Andres elizan 12.00xetan egingo dan meza berezixarekin ekingo detse Casinuaren mendeurrena ospatzeko programaziñuari. Bertan Goruntz abesbatzak kantauko dau eta, abesbatzeko kidiak esan deskuenez, "lehelengo zaxitan, mezia ospatzen dan bittartian korotik jardungo dogu eta, horren ostian, barriz, korotik bajau egingo gara, mezia entzutera juandakueri begira beste hiru bat kanziño eskintzeko, hildako bazkidiak goguan". Ekitaldixan bazkide nagusixeneri omenaldixa egingo detse eta, behin mezia eta bere inguruquak amaitzian, aldame-nian daguan Casinuaren tabernara juango dira, bertan bazkidiendako eta eureri laguntzera juandakuendako emongo daben psikolabisa hartzera.

Hauxe izango da mendeurrenaren inguruan antolatutakuen artian ospatzen lehelengua, baiña Casinoko arduradunak oindiok aurreratu ezin leikiazen beste hainbat jarduera berezi antolatzeko biharrian hasit-ta dagoz eta, ekitaldixak zihezten doiazan neurrixan, horren barri emoten juango da-bela aurreratu deskue.

### Alkarte biren batuketia

Gaur egunian danondako ezaguna dan Casino Artista Eibarrés alkartia bere aurretik Eibarren eguazen beste alkarte bi batuta jaixo zan 1912. urtian. Hain zuzen be, Club Eibarrés eta Casino Artista alkartiak bat eginda jaixo zan Eibarko Casinua. Histori-xan atzera egitten badogu, Pedro Unzeta




presidente modura zekan Casino zaharreko bazkidiak 1896az geroztik orduan sasoi-an Estaziño kalian eguan Salón Teatruan bil-tzen zirala irakorri geinke; baiña, alkartiaren bazkide kopuruak gora egittian, 1912rako lokala txiki geratu ei jakuen eta, horregaittik, urte horretako martxuan Club Eibarrés al-kartiak zekan egoitzara kanbixatzeko era-bagixa hartu eben bertako bazkidiak eta, holan, alkarte bixak bakarra izatera pasau ziran eta, erregular, alkarte bixen noitasu-naren zatitxo bati ertsitta, izen barrixa ipiñi zetsen alkartiari, gaur arte iraun daben Ca-sino Artista Eibarrés izena hain zuzen be.

Eta harrezkero izenari eutsi detsan alkar-tiak ez dau bestelako kanbixio aittatzekorik euki, ez behintzat egoitzaren kokalekuari begira: 100 urte bete barri dittu alkartiak eta urte horrek guztiak etxe berian emon dittu, Estaziño kaliak Ibarkurtzerekin bat egitten daben kale-kantoi-an. Eta, edade horretara

aillegatzen dan beste edozeiñen modura, Casinua be hamaika gertakizunen testigua izan da. Hori bai, barbarik egitten ez daben testigua. Bestiak beste, Casinuaren pare-parian daguan Ibarkurutzeko itturri barrixa-ren inauguraziñuan inbitaziño-premiñarik ez eban gonbidatuetako bat izan zan.

Alkarte barrixa sortu eta bazkidiak egin-dako lehelengo batzarrian aukeratu eben Casinuaren lehelengo direktibia: Tomas Garate (presidentia), Crispin Hernández (presidente-ordia), Eulogio Arizmendi (te-sorerua), Vicente Hernández (idazkari edo sekretarixua) eta Lorenzo Valenciaga, Do-





Fermin Ziorruga Casinoko billar jokalaria aparta izan zan. Gaur egunian be billar-txapelketak antolatzen dittue.

roteo Larrañaga, Satur Aranburu, Andrés Arana eta Candido Bustinduy (bokalak).

### Politika eta ideologixa bariko tokixa

Eibarko Casinuak bere sorreratik oso argi laga eban bertako bazkidiak atetik kanpora laga biharko zittuela ideologixa eta siñesmen kontuekin lotutako guztiak eta, du da txikixenarendako tartia laga barik, Casinuaren ezaugarri berezixena izan dan hori idatziz jasota laga eben alkartiaren lehelengo reglamentuan. Izan be, bertako kidiak oso argi zeken zeren alde jardungo eben: hain zuzen be, kulturariaren eta artiarene mesedetan biharian jarduteko, herrixaren alde egitteko gogurekin batera izan ziran bertako bazkidiak alkartzeko arrazoi nagusixa. Eta, 100 urte pasauta be, horri eusten detse gaur egungo bazkidiak, zuzendaritza-taldia osatzen dabene Jose Alberto Aldazabal, Jorge Rubio Gómez, Rafael Fernández, Federico Aldazabal eta Alberto Aberasturi buruan dittuela.

### Kartak, ajedreza eta billarra

Casinua aisialdirako gunia izateko jaixozan eta oin dala mende bateko testuinguruan erraz ulertzen da ideologixa eta politi-



Tomas Garate (ezkerretik hirugarrena) Casinoko lehelengo presidentia izan zan eta Francisco Arizmendi (lehelengua eskumatik), barriz, zazpigarrena. Bixak Eibarko armagiñen billeran etaratako argazkixan.



dua albo batera lagatzeko aginduaren zer-gaittixa: izan be, sasoi hartan Eibar bittan banatuta eguan eta batian bizi ziran "goitarren" eta bestian bizi ziran "behetarren" arteko lehia etenbarikua zan. Horri Elizarekin ezer jakin nahi ez eben republikano, sozialista eta bestelakuak elizaren aldekuakin batera bizi zirala, nahasketa horretatik urten leikiana erraz imajinatzeko modukua da. Eta, gaiñera, etenbariko aldaketia bizi-tzen ziharduan gizartian sosiguz-sosiguz errotzen hasitta eguan nazionalismua mo-



Domekako meza berezixan Goruntz abesbatzak kantauko dau, lehelengo koruan eta gero behian.



Estaziño kaliak eta Ibarburutzek bat egitten dabene tokixan dago Casinua. Aurretik parian egon zan Salon Teatruan alkartzene ziran bazkidiatoko batzuk, 1912xan alkarte bixak batuta Casino barrixa eratu aurretik.

duko ingrediente barrixak gehitzen hasi jakozene. Horregaittik, alkarte barrixa eratze-ko orduan oso argi euki eben Casinuak ez ebala zerikusirik izango herrixan aurretik eguazene Casa del Pueblo, La Conservadora, La Liberal Republicana, Circulo Carlista, Batzoki eta antzerako tabernekin, hau da, izaera politiko oso konkretueri lotuta eguazene lokalekin.

Eta, oiñarri-oiñarritzko ezaugarrixa gidari, holan jua ziran zihetzene Casinorako egokixak izango ziran aktibidadiak, gaur egunian be bizirik daguazene joko diferentia: karta-jokuak, xakea eta, zelan ez, oindiok be hainbat txapelketarendako atxakixa emotene dabene billarra.

TEEN-  
AJEA



Mikel Cortes, Sebastian Gomez eta Ane Aranbururekin batera **Breaking Molds** komunikazio agentzia osatzen du Imanol Abad eibartarrak. 1985ko belaunaldiko semea, bere bidea egiten dihardu eta ez lukeela aldatuko onartzen du. Moldeak apurtzen doa, bitartean, bidearen sorkuntza horretan.

**IMANOL ABAD (Breaking Molds):**

**“Publizitatearekin markak tontotzat hartzen gaituzte”**

**- Nola eta noiz sortu zen *Breaking Molds*?**

Kasualitate puntua izan zuen. Mikel eta biok Trourist izeneko proiektuarekin hasi genuen gure enpresa-abentura: hor oso ondo landu genuen gure web-a eza-gutzera ematea, marka bat sortzeko egin beharrekoa... Esperientzia hartatik, eta planeatu barik, hainbat enpresatik deitu gintuzten euren komunikazio ahaleginetarako laguntza eskatzen. Egun batean, nola izan zen ondo jakin barik, konturatu ginen gure denboraren %100a jarduera horri eskaintzen geniola.

**- Zeintzuk dira apurtu nahi dituzuen moldeak?**

Marka gehienek, euren publizitatearekin, tontotzat hartzen gaituzte, eta egunero jasotzen ditugun albisteetan negatiboak izaten dira orokorrean: langabezia zifrak marka apurtzen, murritzetak, kaleratzeak... Testuinguru horretan, komunikazio agentziek dibertitzeko, harrizko, emozionatzeko... betebeharrak dugula. Horrela, gure bezeroen markak interesgarriago egingo ditugu, baina, gainera, gure ingurua hobetu dezakegu.

**- Nolako proiektuak garatu dituzue orain arte?**

Markak sortu ditugu, webguneak diseinatu, bideoak errealtatu edota street marketing ekintzak asmatu; baina marketing helburuez gain, bizi dugun ingurua hobetzeko kanpainez sentitzen gara harroago. Adibidez, eldiarior tomorrow.com-ekin: mundua aldatu nahi dutenen egunkaria. Mezu optimista igortzeko Deustuko Unibertsitatearentzat egiten dihardugun kanpaina da, gazteei hedabideetan azaltzen diren berri negatiboak modu positiboan berridazteko aukera emanez.

**- Ekintzaile gaztea izate hori beti izan duzu buruan edo bapatean sortutako zerbait da?**

Ekintzaile gaztea izateak lan asko eta lo gutxi egitea eta betiko zalantzan bizitzea dakar; baina maite duzun horretan lan egitean disfrutatzea, egunero erronka bati aurre egitea, proiektu propioak garatzean poztea eta zure denbora eta energiaren jabe izatea ere adierazten du. Nahi izan dudalako aukeraturako bidea da eta ez nuke aldatuko. Horretarako egina nago!

**GAZTEMENUA**  
barixaku gauetan  
txotxa eta garagardoa barne

DENA **18 €**  
BARNE

**Entsalada mixtoa edo Bakailao tortila edo Bakailao konfitatua**  
.....  
**Txerri-saiheskia parrillan edo Oilasko erreka parrillan edo Okela gisatua**  
(Hirurak patata goarnizioarekin)  
.....  
**Gaztaia, intxaurrak eta membrilloa**  
Ogla, ura, ardoa, garagardoa eta sagardoa

Otaola etorbidea, 3 - atzea  
(Hiper Eroskiren alboan)

**Iruki**  
Sagardotegia

Tel. 943 20 68 44  
irukieibar@hotmail.com  
www.irukieibar.com

**Udaberrirako  
BEHAR DUZUN GUZTIA:**

ospakizunetarako jantziak,  
egunero erabiltzeko erropa,  
moda gaztea eta dibertigarria,  
arropa erosoak eta informalak,  
oinetakoak,  
konplementoak...




*Udaberrirako*

*GEHIGARRI berezia*

**m o d a**

# gratzina

Zuloagatarren, 2



Zuloagatarren, 1  
EMAKUME eta GIZON MODA

## Valenciaga



Egunero  
erabiltzeko eta  
**ospakizunetarako**  
erropak





hongo

**Bidebarrieta, 18  
EIBAR**



**S A C H E R**

**Urbietta, 22 DONOSTIA  
Andra Mari, 24 DURANGO**



**J. Etxebarria 6  
KONPLEMENTOAK**



**gazteendako  
erropa eroso  
eta dotoreak**



**BETI EHUN  
NATURALAK**

**Arragueta, 9**



## Eibar Eskubaloia historia egiten hasi da lehenengo urtetik

**LIGA PROBINTZIA MAILAKO TERRITORIALEAN HASI, EUSKAL LIGARA IGO** eta Euskadiko txapela jantzi: hori guztiori denboraldi berean egitea ez da inoiz ere samurra. Partidurik galdu gabe, gainera. Hori lortu du kadete mailako Tekniker Eibar Eskubaloiak. Somos Eibar Eskubaloia talde nagusiak, bestalde, Usurbilen

irabazi eta gero, 25-24 gainditu zuen asteburuan Ford Mugarri Arrasate Ipurua kiroldegian: Gipuzkoako Kopako bi partidutan, dagoeneko Eibarko taldea maila altuagoko taldeei irabazteko gai izan da.

### Eskubaloi Jaia asteburuan

Gaur hasi eta domekara arte Eskubaloi Jaia egingo da Untzaga plazan: tartean izango diren ekitaldiekin batera, txosna ere zabalduko da eta oilasko pintxoak salduko dira. Gaur DJ-arekin hasiko da jaia eta bihar multikirola denboraldiko azken jardunaldia egingo da eta arratsaldean Lumagorri oilaskodun mila pintxo prestatu. Domekan ere izango da saltsa, klubeko guraso eta jokalarien arteko partiduekin.



## Bederatzi eibartar Arratzu-Urdaibaiko mendi lasterketan

**ZAPATUAN JOKATUTAKO 30 KILOMETROKO ARRATZU-URDAIBAIKO MENDI-LASTERKETAN**, gure herriko zortzi ordezkari izan ziren, guztiak



ere lau orduren bueltan ibili zirenak proba amaitzeko. Jose Mari Berredo, Ibon Vega eta Raul Fernández izan ziren hori baino denbora gutxiago behar izan zuten eibartarrak 2.000 metroko desnibel hori gainditzeko. Guztira, 342 parte-hartzaile izan zituen probak; eurretatik, 229k amaitu zuten.

## Eibar KE sailkatuta igoerako promozioa jokatzeko

**IRUÑEAN OSASUNA B-RI 1-2 IRABAZITA, ALAVÉSEK PONTERRADINAREN ZELAIAN** berdinketa baino lortu ez zuenez, Eibar KE-k igoera promozioa jokatzeko ziurtatu du eta liga hirugarren postuan amaitzea ia-ia. Azken horretarako nahikoa izango luke Sestaon irabaztearekin: partidua domekan jokatuko da, 18.00etan. Hurrengo asteburuan jokatuko den ligako azken jardunaldian, Eibarrek Real Sociedad B (Sanse) hartuko du Ipuruan promozio faseari ekin aurretiko azken partiduan.

3. mailan jokatzen duen Eibar KE-ko bigarren taldeak, bestalde, jaitsiera postuak saihestu ditu bi jardunaldiren faltan, asteburuan Elgoibarrekin Unben bana berdindu eta gero.

### Ez-ohiko batzarra

Atzo 19.30etan zen egitekoa Portalean, bertan Administrazio Kontseilua aldatzeko asmoz. Alex Aranzabal presidentea jarraitzekotan da eta lau-bost aldatuta izango dira taldean, eta badirudi Joseba Rokandio eta Jon Ander Ulazia talde berrian izango direla.




## Herriko beteranoak onenen artean Azkoitiko Duatloian

**DOMEKAN JOKATUTAKO AZKOITIKO XIII. DUATLOIAN, EIBAR TRIATLOI TALDEKO** Roberto Gartzia eta Juanjo Romero elkarrekin sartu ziren eta, absoluto mailan, 25.a eta 26.a izateaz gain, beteranoen 1. mailako bosgarrena eta seigarrena izan ziren. Proban izan ziren ere Andoni Mayo eta Ibon Romero, azken hau 7.a 23 urtez azpiko mailan. Bestalde, gure herriko taldeak 42. postuan sailkatu zen Sorian jokatutako elite mailako Espainiako txapelketan.

## Gipuzkoako Goi Mendi Eskolako ikastaroak

**MAIATZAREN 19 ETA 20-KO ASTEBURURAKO ESKALADA IKASTAROA ANTOLATU DU** Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak Eginon eta Uharte Arakilen; Hastapena (95 euro) eta Trebakuntza (115 euro) mailak

emango dira asteburu horretan. Arroilak jaisteko ikastaroa egingo da, bestalde, handik hamabost egunera: ekainaren 2-3ko asteburuan egingo da Fagon eta Ozan, hori ere hastapen eta trebakuntza mailetan. Bekak daude 15 urte-tik 21era arteko gazteentzat (%65). Informazio gehiagorako, 943-461440 telefonora zenbakira deitu dezakezue.





## Barriola-Begino: buruz-buruko txapelketa Astelenan


**ASTE BURU HONETAN HASIKO DIRA PROFESIONALETAKO BURUZ-BURUKO PILOTA TXAPELKETAREN** partiduak, behin aurreko faseko neurketak amaituta. Astelenak hartuko du horko jaialdi bat, Barriola eta Beginoren arteko partiduarekin. Partidu nagusia hori izango bada ere, aurretik Olazabalek eta Zabaletak neur-tuko dituzte indarrak 2. mailako txapelketaren barruan eta, amaitzeko, Ongay-Peñagarikano eta Mendizabal III.a-Ladis Galarza bikoteek jardungo dute, nor baino nor.



Barriolak Irujo eta Xala konparatu beharko ditu finalera heldu nahi badu. Domekan Beginoren aurka izango duen partidua badirudi errazago izango dela.


## Klub Deportiboa squash-eko Euskadiko txapelaren bila

**ZAILA IZANGO DUTE AURTEN AURREKO BI URTEETAN ES-KURATUTAKO BERRIZ LORTZEA**, orain sasoi hobean daudela ematen baitu bai Donostiako Mundaiz, bai Iruñiako Amaya eta baita Sestaoko Benedikta; hala ere, eibartarrak txapelaren bila joango dira gaur eta bihar jokatu den taldekako Euskadiko txapelketara. Hamabi talde izango dira lehia horretan eta Deporrek Jon Losadak, Jonatan Alustizak, Enrique Lópezek eta Debako Sergio Salgadok osatutako laukotea aurkeztuko du; Mundaizekin osatutako talde mistoan jardungo du, bestalde, Patxi Zulueta Deportiboko ordezkariak.



## Eibarko xakelariak bikain Grosen


**ZAZPI ZAPATUETAN JOKATUKO DEN GROSEKO UDABERRI-KO 8. EDIZIOAREN** bigarren jardunaldia jokatu zen aurrekoan eta, hor diharduten lau eibartarretik, hiruk irabazi egin zituzten euren partidak (Edu Olabek atsedean eguna zuen): Jon Arana, Alex Aranzabal eta Jose Antonio Garrido Groseko Andres Francia, Mundarrok Markel Zuloaga eta Easoko Popotxo Aiestaran baino hobekak izan ziren. Bihar torneoko 3. txanda jokatu da eta hor Olabek eta Garridok elkarren aurka jardungo dute eta Arana eta Aranzabal pieza zuriekin. Partida guzti horiek zuzenean ikusi ahal izango dira, 17.00etatik aurrera, <http://directo.grosxake.com> helbidean.



Jose Antonio Garrido eta Popotxo Aiestaranen arteko neurketaren irudia.

## Brontzeko domina bi erritmikoan

**IRATI YARZAK UZTAIAREKIN ETA NOELIA BEDIAK ZINTAREKIN** egindako lanek brontzeko domina bana eskuratu zituzten domekan Eibarren jokatu-tako gimnasia erritmikoko Gipuzkoako txapelketan. Taldekako txapelketari dagokionez, Ipurua 4. postuan geratu zen (3.aren-gandik 20 hamarrekotara) eta, emaitza horrekin, eibartarrak Euskadiko taldekako txapelketan izango dira maiatzaren 19an.



**SENPERE<sub>n</sub> maiatzaren**

**13<sup>an</sup>**



**IRTEERA**  
09.30

9 euro

**BUELTA**  
19.30

J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte... eta kitto! Euskara Elkarte

**F**  
**Funeuskadi Eibar**  
SERVICIOS FUNERARIOS

Bellatxikis Funeuskadi Eibar - Bulegora:  
Ostoa, 37 - Gasteiz, 6

**24 orduko zerbitzu iraunkorra**

**943 82 15 39** - [www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

**Funeuskadi**  
El pibatu eta hainbat beste...

Eibar - Donostia - Bilbo - Barakaldo - Leizaola - Gernika - Getxo - Sestao - Portugalete - Santurtzi - Balmakoa - Sarriena - Espinosa de los Monteros



## Kiroljokoa trofeoa jokoan eta Kopa ikuspuntuan

**FOBALL-ZALETUEN LIGA AMAITUTA, KIROLJOKOA TROFEOAREN BIGARREN EDIZIOA** izango da jokoan etzi. Goizeko 10.00etan hasiko da domekako partidua Zaldibarko zelaian eta hor izango dira Koskor Eibarko txapelketa eta Bo-

avista Ermukoa. Iazkoa ez da din errepikatu ahaleginduko dira Koskorrekoak eta torneoaren euren gaitasuna. Hurrengo asteburuan, bestalde, foball-zale-tuen Kopa torneoaren hasiko da, hurrengo 12an eta 13an jokatu diren partiduekin.

## Urkiko neskek finalerdietan

**URKIKO NESKEN LEHEN TALDEA MATEMATIKOKI SAILKATU DA GIPUZKOAKO FINALERDIAK** jokatzeko, hiru jardunaldiren faltan hamabi puntuko alde kentzen baitziren Amaiak Bat bigarren sailkatuari. Debako taldeari 2-3 irabazi eta gero, azken jardunaldian 4-0 nagusitu zitzaion Arrasateri. **Ainhoa Bilbaok (argazkian)** bi gol sartu zituen Deban eta beste bat Unbe-ko azkenean. Bigarren taldeak, bestalde, Zumaian jokatu beharreko partiduan izango dute multzoko 1. postuan amaitzeko aukera.



## Urbat waterpoloko 1. mailara igotzeko asmoz

**AZKEN JARDUNALDIAN IRUNEN OIASSO-BIDASOAREKIN 13-10 GALDUTA**, ligan hirugarren postuan amaitu du Urbat-Urko-tronik-ek (34 puntu eta 11 garaipen, berdinketa bakarra eta lau porrot). Orain, igoerako play-offean, UPNA Nafarroako Unibertsitate Publikoa izango du aurkari: bihar, 21.00etan, Orbean jokatu dute lehen partidua eta 20an itzulerakoari egingo diote aurre Iruñean. Hirugarren partidua izan beharko balitz, Iruñean izango zen, hurrengo 27an.

## Muguruza judokak egin zuen proiektiorik onena Ipuruan

**ZAPATU BETEA IZAN ZUTEN JUDOKEK APIRILEKO AZKENA IPURUA KIROLDEGIAN** eta, horrela, emakumezkoen nazioarteko txapelketarekin batera, Manu Agirrek goizean emondako arbitraje ikastaroan, epaile autonomikoen titulua eskuratu zuten Garikoitz Del Barriok eta Aitor Villabak eta kirol antolaketarako ofizialena Nekane Muguruzak, Julen Ramónek, Eneko Loresek eta Adrian Riañok.



Arratsaldeko emakumezkoen nazioarteko Eibarko judo torneoaren, 170 emakume izan ziren parte hartzen. Muguruzak, 19 urtetik azpiko- en urrezkoa eta kadeteen brontzezkoa irabazteaz gain, txapelketako proiektiorik onenaren saria eraman zuen. Urrea irabazi zuten ere euren mailetan Irati Alberdik eta Naiara Fernándezek eta zilarrezkoa Berta Alonsok (kadeteetan) eta Josune Mallabiabarrenak (seniorretan).


## Senpereko triatloia inoiz baino gogorragoa izan zen

**HALA ERE, HAN IZAN ZIREN EIBAR TRIATLOI TALDEKO BIDERATZI ORDEZKARI**, tartean Ane Ziaran, emakumezkoen absolutu mailan 4. postuan sailkatua. Aitor Iturricastillo 40. postuan eta Igor Atxa 51. ean sailkatu ziren, beste eibartar hauekin batera: Edu Oiarzun (86.a), Alejandro Altuna (126), Iker Aranzibia (174), Javier Murcia (175), Ander Ajuriagerra (195) eta Iñigo Villalba (225). Egoera meteorologikoak bereziki gogortu zuen proba (kilometro eta erdi igerian, 40 bizikletan eta 10 antxintxiketan), batez ere igeriketako zatiaren kasuan, Senpereko lakuko ura 13 gradutan zegoelako eta bati baino gehiagori hipotermia ere eragin ziolako.

Bihar Bermeoko VI. sprint triatloia jokatu da, Euskal Herriko zirkuituaren lehenengoa. Hor 750 metro igerian, 25 bizikleta gainean eta 5 antxintxiketan egiten dira.

## Eibar KE-ko nesken talde nagusiak mailari eutsi dio

**AZKEN JARDUNALDIRA ARTE LARRI IBILITA ERE**, 2. mailari eustea lortu du Juan Carlos Izak zuzentzen duen taldeak. Azken jardunaldian husna berdindu zuten Aurrera de Vitoriarekin Gasteizen.



# CARLA IGLESIAS GARCÍA

2010eko maiatzaren 2an hil zen, 2 urterekin

*Beti gure bihotzean egongo zara*

ZURE FAMILIA

**Portaleak** Euskararen Transmisioaren inguruko Mintegia hartuko du maiatzaren 8an, martitzena, ...eta kitto! Euskara Elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatuta. Egun osoan zehar hainbat jarduera egingo dira gaiaren gainean eta horien artean Gemma Sangines psikologoak, Tallers per la Llengua-ko bokalak, jardungo du.

**GEMMA SANGINÉS**, psikologoa:

## “Hizkuntza koofizialak ditugu, baina maila ezberdinean daude errealitatean”

- **Hizkuntza sustatzeko tailerra, gure esperientzia’ hitzaldia eskainiko duzu Euskarara Mintegian. Zertan datza?**

Tallers per la lenguaen tailer bat aurkeztuko dugu. Tallers per la Llengua Herrialde Katalanetan sortutako elkarte bat da, eta bertan hainbat tailer egiten ditugu. Taller d’espai lingüístic personal (TELP) delakoa sortu genuen, pertsona hiztun gutxituentzako zuzendua dagoena, hizkuntzari eusteko kontzientzia eta gogoia dutenentzat bereziki. Hizkuntza sustatzeko tailer honetan kontzientziarik ez duten hiztunengana heltzen saiatzen gara.

- **Ikastaroak, tailerrak... egiten dituzue. Baina horiek hiztun gutxituei edo bestelakoei zuzenduta daude?**

Hiztun gutxituei bakarrik.


- **Zergatik?**

Hiztun gutxituak modu ezberdinean sentitzen garelako. Adibidez, igeri egiten dakien

eta ez dakien jendea badago, nori egingo zenioke igeri egiten ikasteko ikastaroa? Ez dakitenei. Erdaldunak hiztun normalak dira, ez dira txarto sentitzen haien hizkuntza erabiltzen. Berdin da zein hizkuntza izan (euskara, katalana, kurdoa...), axola dena da hizkuntza bat erabiltzeagatik txarto sentitzea. Gaztelaraz, frantsesez edo ingelesez egiten duena ez da gaizki sentitzen, edo bere burura ez dator berak bere hizkuntza egiten badu, aurrean duena txarto sentituko den sentsazioa; hiztun gutxituei, aldiz, bai gertatzen zaigu.

- **Ferran Suay psikologoarekin batera Sortir d l’armari lingüístic liburua idatzi zenuen. Zein zentzutan irten behar da hiztuna armairu horretatik?**

Metafora asko erabiltzen ditugu, eta beste bat urpekariarena izango litzateke. Guk diogu hiztun gutxituak urpekariak garela, azal azpitik goazela eta gertatzen dena da, zu hiztun asertibo bazara, azalera irtetea lor-



tzen duzula, konturatzen zarela badagoela beste euskaldunen bat azalean eta bera-rekin hitz egin dezakezula. Euskararen egoera anormala da, hau da, ez duzu eremu guztietan entzuten. Diglosia existitzen da, jendeak aldi bitan pentsatzen duelako ea zein hizkuntzatan aritu. Horregatik, jendeak egoera guztietan normaltasun osoarekin euskaraz aritzea lortzen duenean esaten da armairutik irteten dela, hiztun normal bezala bere izaera sortu eta kalera atera duela arazo barik.

- **Urpekariaren metafora erabili duzu. Badago arriskurik urpean denbora gehiegi eman, oxigeno barik gelditu eta itotzeko?**

Bai, arrazoia duzu.

- **Herrialde Katalanetan bizi den euskalduna izanik, zein iritzi duzu Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politiken gainean?**

Ez daukat informazio gehiegi, baina dakidanez diru-laguntza asko murriztu dituzte euskararen arloan. Krisiaren aitzakia sartzen da hor, baina beste gauza askotarako ez dute murrizketarik egiten. Valentziarekin konparatuz gero, Nafarroa Eusko Autonomi Elkartearekin alderatzea bezala da, hau da, gu baino askoz hobeto zaudete. Uste dut euskara ez dela meritu bat, baldintza bat izan beharko litzatekeela. Alde horretatik Gobernuak oso txarto egiten du. Noski, euren koofizialitatean ez badute sinesten, ez dago ezer egiterik. Zergaitik gara hiztun gutxituak? Koofizialitate hori ez delako benetan existitzen. Gaztelania bai da baldintza bat, baina euskara ez. Hizkuntza koofizialak ditugu, baina maila ezberdinetan daude kokatuta errealitatean.

### EUSKARAREN TRANSMISIOA Maiatzaren 8ko jardunaldia

08.45.- Akreditazioa eta dokumentazioa.

09.00.- Ongi-etorria.

09.40.- “Transmisioaren kontzeptuarekin bueltaka. Begirada bat gizarte antropologikotik” (**Jone M. Hernandez**. Gizarte Antropologian doktorea eta EHUKo irakaslea).

10.30.- “Eman giltza: hizkuntza transmititzeko modurik naturalena” (**Alkarbide**, Bizkaiko euskara zerbitzuen bilgunea).

11.00.- “Irungo familietan euskararen ondorengoetaratzea sendotzeko plana” (**Irungo Euskara Zerbitzua**).

11.25.- Atsedena.

11.50.- “Familia barnetegiak” (**AEK**).

12.25.- “Hizkuntza sustatzeko tailerra, gure esperientzia” (**Gemma Sanginés**. Psikologoa. Tallers per la Llengua-ko bokala).

13.15.- Bazkaria.

15.05.- “Gurasoek nola, umeei ala?’ eta haurrek euskaraz egitea zertan datzan argitzen lagunduko diguten beste galderak” (**Paula Kasares**. soziolinguista. NUP-eko irakasle-elkartua. Euskaltzain urgazlea).

16.05.- Mahaingurua: “Transmisioa: denon erronka” (Moderatzailea: **Jaime Altuna**, Urtxintxa eskolako hezitzailea).

17.40.- Agurra. Portalean.

**Zezenenganako afizio zoroa izan duela aitortzen du Javier Fernandez-ek. Zezenketak antolatu ditu, toreatzen jardun izan du eta Peña Taurina Pedrucho Eibarresako presidentea izan da hainbat urtetan. Domekan ondo merezitako omenaldia jasoko du lagunartearen eskutik Chalchan egingo den bazkarian.**

**JAVIER FERNANDEZ, zezenzalea:**

## “El Cordobés izan da toreoan fotogenikoena”

**- Zer esanahi du zuretzat omenaldi hau jasotzeko?**


Zuzendaritzako Jaime Lopez de Guereñu etorri zitzaidan esanez omenaldia egingo zidatela eta nik: “Omenaldia zergatik? Egongo da omenaldia merezi duen jende gehiago bada”. Egindako lanarengatik omenduko nindutela esan zidaten; beraz, pozik. Hala ere, badaude omenaldia merezi duten beste asko ere: Tarifeño, Roberita, Gallito...

**- Nola piztu zitzaizun zezenenganako afizioa?**

Gurasoengandik ez behintzat. Nire aitak Valentziako zezen-plazan egin zuen debuta, baina preso politiko moduan, 1936an. Teruelen gerra amaitu, preso hartu zuten eta Valentziako zezen-plazara eramana. Pasodoblearen musika, zaldien dantza, zezenak... beti gustatu izan zaizkit. Sasoi hartan, Legarren Gallito deitzen genituenak zeuden, beti toreatzen, eta txikitan horretan jolasten genuen (zezenetan, pelotan eta foballean, gutxi gehiago). 60. hamarkadan zezen-plaza berritu zuten eta saio asko egiten ziren.

**- Gogoratzen duzu zezenaren aurrean jarri zinen lehen aldia?**

Peñakoek zioten toreatzaileak falta zirela eta ni jarri nintzen. Behi zahar bat zen, orduan zezenketan behiak hiltzea posible zelako, eta Asuncionekeo serorentzat zen zezenketa. Soraluzek, Elgoibarrek, Ermuak eta Eibarrek toreatzaile bana aurkeztu behar genuen, eta herri bakoitzeko musika-bandaren laguntza geneukan harmailetan. Orain gauzak asko aldatu dira arlo horretan. Beste batean gogoratzen dut nola, Andoni Amaña boxeatzai-



learekin eta Enrique Vidarterekin, DYaren aldeko zezenketa egin genuela, eta irabaziekin anbulantzia erosi zuten. Hori bai, ez zuten aipatu dirua zezenketatik zetorrenik.

**- Pentsatu zenuen, noizbait, zezenketak ofizio bihurtzea?**


Ez. Pentsatuko banu, etxe handia izango nuke Eibar erdian (barrez).

**- Argazkilaria izan zara urte askotan. Zein izan da toreatzaile fotogenikoena?**

Nire sasoiari begira, El Cordobés esango nuke. El Cordobés gazteak zezen bat eskaini zidan hemen egon zen azken aldian. Venezuelan eta Mexikon egon izan naiz berarekin zezenketak ikusten. Mexiko aldean asko ibili izan naiz, Mexiko DF eta Veracruz aldean.

**- Eztabaida dago Eibarko zezen-plazaren erabilera eta berrikuntzaren gainean. Zein iritzi duzu?**

Ez nuke botako. Harmailen azpian lurra dago eta, hori us-tuz gero, tabernak, dendak... egin ahal dira. Botatzen dena gero ez da egiten. Berritu egin behar da eta balio anitzeko instalazioa egin.



## Zirkulu Polarraren inguruko proiektzioa

Mila Gallastegi eta Asier Aranzabal datorren eguenean, 19.00etan Portaleko areto nagusian izango dira "Islandia eta Groenlandia: pausoz pauso, larreetan barrena, laba nahiz izotz gainean", bidaiari biek Artikoko Zirkulu Polarrera egindako bidaiaren esperientzia jasotzen duen ikus-entzunezkoa eskaintzen. Kuttak babestutako jarduerara gerturatzen direnek, ia ordubeteko iraupena izango duen proiektzioa amaitzean, lanaren protagonistei galderak egingiteko aukera izango dute.


## Napokak familia handitu du

Astelehenean, Donostiako Doka Kafe Antzokian Layo Raser taldearekin batera eskainitako kontzertura joan zirenek Napoka Iria bikotetik jaino den Napoka Band zuzenean ezagutzeko aukera izan zuten. Izan ere, Miren Narbaiza eta Ander Mujika musikariek, esperimintatzen segitzeko duten beharrari erantzuteko, familia handitzea erabaki eta beste hiru musikari gehituta Napoka Band izeneko taldea osatu dute. Musikari berriak Willis Drummond taldeko Rafa eta Felix eta Andran bandako Andoni dira. Taldeak maiatzaren 18an 22.30etatik aurrera Elorrioko gaztetxean kontzertua emango du Kokein taldearekin batera eta 24an, berriz, Arrasateko gaztetxean joko du.




## “Gernika” dantzarako sarrerak salgai

Maiatzaren 19an Aukeran dantza konpainiak "Gernika, danza sobre el lienzo" ikuskizuna eskainiko du Coliseoan, 23.00etatik aurrera. Ikuskizuna Eibarko Txirrindularien Elkar-teak antolatu du, Udalaren eta La Caixaren laguntzarekin, bonbardaketaren 75. urteurrenaren harira eta sarrerak Untzagan ipiniko dituzte salgai bihar eta etzi eta baita hurrengo asteburuan ere, 12.30etatik 14.30etara (15 euro).




## Kontzertu erraldoia bihar gauerako

**ARMERIA ESKOLAREN SORRERAREN MEN-DEURRENA OSPATZEKO PROGRAMAZIOARI JARRAITUTA**, biharko "gazteentzat bereziki pentsatutako jardunaldia" prestatu dute, 21.00etatik aurrera Untzaga plazan hainbat taldek musutruk eskainiko duten kontzertua antolatuta: eMePebo5t taldeak hasiko du emanaldia eta haiei erreleboa Damudot taldekoek hartuko diete. Gauerdian, berriaz, Su Ta Gar taldekoek Ametsak Pilatzen lanik berriena zuzenean eskaintzen jardungo dute. Eta hiru talde eibartarren kontzertuak amaitzean, 02.30ak aldera Oihan Vega Euskadi Irratiko DJ-ak goizaldera arte saioa eskainiko du, dantzan jarraitu nahi duen guztiarentzat.



eMePebost, Damudot eta Su Ta Gar izango dira, Oihan Vegarekin batera, bihar gauerako kontzertuan.



## Depedrok diskoa aurkeztuko du gaur Coliseoan

**GAUR 20.30-ETATIK AURRERA DEPEDRO (JAIRO ZAVALA) ETA BERE BANDA COLISEOAN ZUZENEAN** entzuteko aukera izango da, "Nubes de papel" diskoa aurkezteko kontzertuan. Blues eta rock musika gustoko dutenekederto ezagutzen dute aurretik Vacazul, 3000 Hombres eta Amparanoia taldeetan jardundako musikaria. Badira lau urte bakarkako bideari Depedro izenarekin ekin ziola eta gaur "Nubes de Papel" Tucsongo Wavelab eta Madrilgo Pukalpa estudioetan grabatutako albumeko kantak eskainiko ditu. Estatu mailan indie estiloari jarraitzen dioten artisten artean garrantzitsuenetakoa den Depedrok diskoaren grabazioan goi-mailako musikariekin jardun du, hala nola Joey Burns, John Convertino, Jacob Valenzuela eta Vetusta Morla modukoekin.

## laburrak

### OGIA EGITEKO TAILERRA

Azataporrua elkarteak antolatuta, maiatzaren 12an ogia egiten ikasteko tailerra eskainiko dute Portalean (sukaldean), 09.00etatik 13.00etara. Parte hartu nahi duenak Azataporrua elkartearen eman dezake izena (Juan Gisasola kalean) eguazten arratsaldetan (prezioa 30 eurokoa da).

### EUSKAL JAIRAKO TXARTELAK

Maiatzeko azken asteburuan ospatuko den Euskal Jaiaren inguruan egingo diren kantu-afairako zein herri bazkarirako txartelak gaurtik hasita eta hilaren 20ra bitartean erosteko moduan ipiniko dituzte Depor tabernan. Afari zein bazkarirako txartelaren prezioa 20 eurokoa izango da (14 eurokoa ikasle, ume eta langabetuendako).

### KONTZERTUA KOSKORREN

Datorren asteko barixakuan, hilaren 11n, 23.30etatik aurrera Melissa & The Jacks Mutrikuko taldeak kontzertua eskainiko du Koskor tabernan. Euren estiloari jarraituta, 80 eta 90eko hamarkadetako abesti ezagunen bertsioak joko dituzte.

## Palacios aita-semearen argazkiak eta ikus-entzunezkoa La Bañezan

**ASTEBURUAN LA BAÑEZAN (LEONEN) LEHENENGOZ OSPATU ZEN TXORIZO AZOKAREN** testuinguruan aurkeztu dute Juan Antonio Palacios Deportiboko Argazki Taldeko kideak bere seme Juanekin batera sortutako ikus-entzunezkoa:



12 bat minutuko erreportajeaz Zamarako Valle del Tera-n familia batek txerria nola hiltzen duen erakusten dute artista eibartarrek. Argazkilariak familia batekin egon ziren txerri-hilketan eta txerriak egiten zituzten bitartean, horren inguruko prozesu tradizionala jaso eta ezagutzera emateko asmoz. Ikus-entzunezkoarekin batera, argazki erakusketa ere ipini zuten ikusgai.



## Argazkilaritza Maiatzean martxa betean

**AURREKO ASTEAN AURKEZTU ZUTEN KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEKOEK ANTOLATUTAKO** Argazkilaritza Maiatzean. Martitzenaz geroztik eta hilaren amaierara arte 31. Argizaiola Lehiaketako lanen erakusketa ikusteko aukera dago Deportiboan eta El Ambigú eta Portalea tabernetan, berriz, Deportiboko Argazkilaritza Taldeko kideen lanak ipini dituzte ikusgai. Eta eibartarren taldekako hirugarren erakusketa Untzaga-ko jubilatutako etxean ikusteko moduan egongo da, maiatzaren 12ra arte. Eta gaur arratsaldian

inauguratuko dituzte hilaren 27ra arte Portaleko erakusketa aretoan ikusgai izango diren Jose Benito Ruizen "Diálogos sobre composición", Santos Moreno Villarren "Alma de Cuba" eta Xavier Ferrer Chusten "Grabarka" eta ekainaren 3ra arte Topalekuak hartuko duen Julián Ochoaren "Cuba" izenburukoak. Erakusketez gain, maiatzaren 12an Untzagan argazki-estudioa ipiniko dute martxan, nahi duenak bertan argazkia atera eta egunean bertan musutruk etxera paperean eramateko. Bestalde, Jose Benito Ruizekhilaren 18an eta 19an emango



Irigoien, Elejalde, Telleria eta Larreategi hilabete bereziaren aurkezpenean. / SILBIA HERNANDEZ

duen ikastaroak arrakasta handia izan du eta bertan parte hartzeko aukerarik ez dago, toki guztiak beteta daude-eta. Eta hilaren 27rako argazki rallya antolatu dute. Ekitaldi zerrenda irakurrita bestelakoa pentsa daitekeen arren, egitaraua osatzeko orduan krisiak aurre-

kontuan eragina izan duela azaldu zuten, "baina ez kalitatean, taldeko kideek ditugun kontaktuei eta Argazkilaritza Maiatzean parte-hartzeak lortu duen prestigioari esker argazkilariak kobratu barik etortzea lortu dugulako".

## Dena prest Udan Jolasetan jarduteko

**ASTELEHENEAN ZABALDUKO DA AURTEN UDAN JOLASEAN PROGRAMAN PARTE HARTU** nahi dutenentzat izen-emateko epea. Udalak antolatu eta Astixak kudeatzen dituen udaleku irekiak Haur Hezkuntzako 3. mailakontzat eskaintzen dira (uztailaren 2tik 13ra, 10.00etatik 12.00etara) eta matrikulazioa maiatzaren 10era arte egiteko aukera izango da, Indianokua gaztelekuan, goizeko 11.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 18.00etara. Nagusiagoen-



Astixak kudeatuko du aurten ere Udan Jolasetan programa. / SILBIA HERNANDEZ


tzat, Lehen Hezkuntzako 1. go mailatik 6. mailara bitartekoentzat, berriz, Oporrak Afariketara antolatu dute (txanda bitan antolatuko da, uztailaren 2tik 13ra eta uztailaren 9tik 20ra). Horretarako izen-ematea ere datorren astean egin beharko da, Udan Jolasetan programako matrikulazioarekin batera.

Eta 12-16 urte bitarteko gazteentzat, berriz, Gaztetan pro-

gramaren barruan jarduera bi prestatu dituzte: DBHko ikasleek ekainaren 2, 9 eta 16an Indianokua gaztelekuan eskainiko den sanjuanetarako kamisetak margotzeko tailerren parte hartzeko aukera izango dute (izen-ematea maiatzaren 22tik 27ra) eta Urdaibaira ateraldia ere prestatu diete, uztailaren 16tik 20ra bitartean bertara kanpinez joateko.


## Irene Saceda bihar ETB-1ean

**ZAPATUAN 21.45-ETATIK AURRERA, ETB-1EN EMANGO DUTEN KANTUAN** saioan Irene Saceda eibartarra ikusteko aukera izango da. Juan Bautista Gisasola Musika Eskolan gitarra elektrikoa eta solfeo ikasten diharduen 11 urteko gaztea, gainera, Koro Gazteko kidea ere bada eta biharko saioan "Vivo per lei" Andrea Bocelliren balada ezaguna eskainiko du.




## Eskolarteko Antzerki Erakusketa abian

**EGUAZTENEAN HASIKO DA AURTEN 28 URTE BETEKO DITUEN** Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketa, Guadajarako Teatro de Malta taldeak Hezkuntza Esparruan eskainiko duen "Alegría, palabra de Gloria Fuertes" antzezlanarekin. Hurrengo emanaldia, berriz, San Andres ikastetxeko ikasleek eskainiko dute (maiatzak 10ean, 15.00etan), "Amonaren Base-ria", "Gaixo Tranpatiak", "Ikasle berria" eta "Sendagile Eroa" izenburukoak taularatuta. Hortik aurrera, eta ekainera bitartean, Debabarreneko ikasleen zein talde profesionalen ikuskizunak tar-tekatzeko joango dira.




# laztanak emoten...


Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, MIKEL "Mikelon Txin-Pon", zortzi urte egingo dozuz bihar-eta. Patxo potolo bat, batez be Naroa eta Patxiren partez.




Ongi etorri, BITTOR! Eta zorionak amatxo eta aitatxo barrixerri, famelixa guztiaren partez.




Zorionak, PEIO, sei urte dozuz-eta honezkeroko kokodriloko! Zoragarri pasauko dogu gaurko merendolan eta pijama jaixan. Patxo haundixak.



Zorionak, MIREN, atzo bost urte egin zenduazena-eta. Muxu haundi bat Ibane, aitta eta amatxoren partez.



Zorionak, IRATI, hillairen 1ian lau urte bete zenduan-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Ongi etorri, ANE Mendizabal Osa, apirilaren 20xan gure artera etorri-ziñan-eta. Zorionak gurasuerri, famelixa guztiaren partez.

## HILDAKOAK

- Argentina Justel Castaño. 90 urte. 2012-IV-16.
- Antonio Corral Artayer. 92 urte. 2012-IV-24.
- Carmen Ibarzabal Bergara. 83 urte. 2012-IV-26.
- Teodora Larrea Aranberri. 91 urte. 2012-IV-27.
- Blanca Bereziartua Etxaniz. 91 urte. 2012-IV-27.
- Gloria Iturralde San Juan. 74 urte. 2012-IV-28.
- Ines Zamakola Urkidi. 87 urte. 2012-IV-28.
- Josefa Balzola Arrillaga. 93 urte. 2012-IV-30.
- Juanita Aldai Eizagirre. 83 urte. 2012-IV-30.
- Antonia Ferreira Ferreira. 97 urte. 2012-V-1.

## JAIOTAKOAK

- Markel Lasuen Fernández. 2012-IV-21.
- Julen García Larrañaga. 2012-IV-23.

SUDOKUA

		3		6			7	
7	6			9	2		8	
					3			1
	2	7						
9	8						2	3
						4	9	
4			9					
	3		7	1			5	9
	9			3		8		

## DENBORAPASAK

5	6	7	4	3	2	8	1	8
1	8	2	6	9	7	3	5	4
4	3	8	8	1	5	7	2	6
9	5	8	3	7	1	8	4	2
8	7	0	5	2	4	1	8	8
2	1	4	9	8	8	5	3	7
7	2	5	1	8	8	4	8	3
8	9	1	7	4	3	2	6	5
9	4	6	2	5	9	8	7	1

AURREKOAREN EMATZA

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

4ean: 22.30  
5ean: 17.00, 19.45, 22.30  
6an: 17.00, 20.00  
7an: 20.30

"Al borde del abismo"

Zuzendaria: Asger Leth




(2 ARETOAN)

4ean: 22.30  
5ean: 17.00, 19.45, 22.30  
6an: 17.00, 20.00  
7an: 20.30

"¿Y ahora adónde vamos?"

Zuzendaria: Nadine Labaki



(ANTZOKIAN)

5ean: 19.45, 22.30  
6an: 20.00  
7an: 20.30

"American Pie"

Zuzendaria: John Hurwitz




(ANTZOKIAN)

5ean: 17.00  
6an: 17.00

"Ira de Titanes 3D"

Zuzendaria: J. Liebesman



## horoskopoa

**ARIES**

Erabakiak hartzea tokatzen bazaizu, ezin duzu hori besteen gainean laga eta beste alde batera begiratu. Aurrera egiten ikasi behar duzu.

**TAURUS**

Morala nahiko baxu izango duzu hurrengo egunotan, baina alboan beti izango duzu irrifarre bat edo beste eragingo dizun lagunik.

**GEMINI**

Gauza nahiko arraroa gertatuko da zure etxean. Kontatuta ere, sinesteko zaila. Momentu barregarriak pasako dituzu familian, hori zalantza barik.

**CANCER**

Ukitzen duzun gauza bakoitza urre bihurtzen duzula dirudi. Argi ibili, hala ere, ez ukitu den-dena, bestela urrea jan beharko duzu-eta.

**LEO**

Eremu debekatuan sartuko zara. Ez duzu nahita egingo, baina gero nahiko zaila egingo zaizu handik irtetea. Asmatu beharko duzu.

**VIRGO**

Umelduta dituzu hezurak azken asteotan egin duen euriarekin, baina udaberriak bere alde eguzkitsuen erakutsiko dizu hemendik aurrera.

**LIBRA**

Talde-lan bikaina egingo duzue lagunek: holoakoak dira laguntaldeak batzen dituzten ekintzak. Urteetan gogoratuko duzuen izango da.

**SCORPIUS**

Giro polita biziko duzu biharko afarian eta aspaldian ez bezala gozatuko duzu. Merezi arren, biharamuna izango da okerrera.

**SAGITTARIUS**

Gauzak posible izango dira, zuk horrek lortzeko borroka egiten duzun heinean. Ahaleginik gabe, ez duzu ezer lortuko. Ezer!!

**CAPRICORNIUS**

Jasotakoa bueltatzeko ordua heldu da. Zaila egingo zaizu, baina egin behareko zerbait da eta gero ondo sentituko zara. Justizia azkenean!

**AQUARIUS**

Di-da, momentu batean egingo duzu, ia konturatu gabe. Orduan, zertarako hainbeste buelta eman? Gauzak ez da hain konplexuak.

**PISCIS**

Atzerrira bidaia egiteko gogoia izango duzu, baina dirua izango da faltako zaiuna. Ea aurrezten duzun zeozer eta hori gauzatzeko aukera dagoen.

**Barixakua 4**

**EIBAR ESKUBALOIA Arratsaldean.-** DJ-ren saioa. Untzagan.

**SANJUANAK PRESTATZEN 19.00.-** San Juanetarako jarduerak prestatzeko bilera irekia, Jaixak Herrixak Herrixandako elkarteak deituta. Montekasino pareko parkean.

**KONTZERTUA 20.30.-** Depedro (Jairo Zavala), "Nubes de papel" diskoaren aurkezpen-kontzertua. Sarrera: 10 euro. Coliseoan.

**BERTSO-AFARIA 21.30.-** Irun-Eibar desafioa. Bertsolariak: Manu Goiogana, Aitor Errazkin, Aimar Goenaga eta Mikel Mujika. Bide-Alde elkartearen (Txaltxa Zelai, 8).

**Zapatua 5**

**EIBAR ESKUBALOIA Goizean.-** Multikirolean diharduten umeen partidua. Arratsaldean, Lumagorri pintxoaren salmenta. Untzagan.

**BONBARDAKETAREN 75. URTEURRENA 10.00.-** Bonbardatu zituzten tokiak ikusteko ibilbide gidatua, Jesus Gutierrez historialariarekin, Bonbardaketen egitarauaren barruan antolatua. Untzagatik abiatuta.

**SANTA KURUTZEKO JAIAK 10.30.-** Kanpaiak.  
**11.00.-** Meza, Santa Kurutzeko ermitan Gorosta eta Mandiola auzoetan hildakoen alde. Hamaiketako.  
**12.00.-** Juan Mari Narbaiza bertsolaria, Jone Ostolaza eta Unai Andonegi trikitilariak.  
**12.30.-** Haurrentzako jolasak.  
**13.00.-** Herri jolasak, auzoko gazteen eskutik.  
**14.30.-** Bazkaria Ixua jatetxean. Ondoren erromeria, Jon Ostolaza eta Unai Andonegi trikitilariarekin.

**LEHIAKETA 18.00.-** Amaren Eguna dela eta, marrazki lehiaketa (4 eta 12 urtekoentzat). Sari-banaketa 19.30etan izango da. El Corte Inglés-aren aretoan.

**ZEZENZALEAK 19.00.-** Meza, Eibarko Pedrucho Zezenzaleen Elkarteke hildako bazkideak gogoan. San Andres elizan.

**KONTZERTUA 21.00.-** MP5.  
**22.30.-** Damudot.  
**00.00.-** Su Ta Gar.  
**02.30.-** Oihan Vega. Armeria Eskolaren Mendeurrenaren inguruan antolatutako kontzertua. Untzagan.

**Domeka 6**

**EIBAR ESKUBALOIA Goizean.-** Eibar Eskubaloiko guraso eta seme-alaben arteko partidua. Txosna. Untzagan.

**SANTA KURUTZEKO JAIAK 10.30.-** Kanpaiak.  
**11.00.-** Meza nagusia, Santa Kurutzeko ermitan. Piskolabisa.  
**12.00.-** Soka-dantza Kezka dantza taldearen eta Usartza txistulari taldearen eskutik. Jone Urija eta Miren Gisasola trikitilariaren emanaldia.  
**12.45.-** Haurrentzako jolasak.  
**14.30.-** Kanpai hotsak jaiak agurtzeko.

**ZEZENZALEAK 11.30.-** Eibarko Pedrucho Zezenzaleen Elkartearen urteko batzarra, San Andres elizako lokalean. Piskolabisa. Bazkaria eta Javier Fernández Cuétarari omenaldia. Chalcha jatetxean.

**CASINO ARTISTA 21.30.-** Casino Artista Eibarrés-en mendeurrena ospatzeko meza berezia, Goruntz abesbatzaren parte-hartzearekin. San Andres elizan.

**NAGUSIEN HAMABOSTALDIA 16.00.-** Pertsona Nagusien Ibilaldia, Juan Luis Mugerzaren oroimenez. Untzagatik Azitainera.

**Astehena 7**

**NAGUSIEN HAMABOSTALDIA 16.00.-** Pertsona Nagusien Ibilaldia, Juan Luis Mugerzaren oroimenez. Untzagatik Azitainera.

**IKASTEN 16.00.-** Sendabelarren Foroa: zolda-belarra eta zauri-belarra. Portalean.

**HITZALDI-TAILERRA 17.00.-** "Mina arintzeko teknikak", Iñaki Figueiredo. Euskadiko Kutxaren lokalean (Julian Etxeberria).

**Martitzena 8**

**NAGUSIEN HAMABOSTALDIA 08.00.-** Olitera txangoa. Irteera Ego Gainetik.

**EUSKARAREN TRANSMISIOA 08.45tik 17.40etara.-** Goiz eta arratsaldeko saioa.  
**13.15.-** Bazkaria Deporren. Saioak Portalean.

**IKASTEN 10.00.-** "Musikaz gozatu", Marina Lertxundiren eskutik. Armeria Eskolan.

**GAZTETAN BILERA 17.30.-** Akuarium-era joateko irteeran parte hartuko dutenentzat bilera. Portalean (3. solairuan).

**BONBARDAKETAREN 75. URTEURRENA 19.00.-** "Euskal Herriaren irakurketa. Eibarko Berreraikuntza 1937-1957" lanaren gaineko hitzaldia, Francisco Javier Muñozen eskutik (euskaraz). Portalean.

**Eguaztena 9**

**IKASTEN 10.05.-** Ibilaldia: Iraeta-Ibañarrieta. Zumaiara joateko trenaren irteera, Ardantzatik (Estaziñotik, 10.13etan).

**HITZALDIA 11.00.-** Paziente Aktiboa proiektuaren aurkezpena, Estibaliz Ganboa Osakidetzako arduradunaren eskutik.


**ESKOLARTEKO ANTZERKIA 15.00.-** "Alegria, palabra de Gloria Fuertes" (Teatro de Malta, Guadalajara). Hezkuntza Esparruan.

**SOLASALDIA 19.00.-** Idazlearekin Solasean: Harkaitz Cano, "El filo de la hierba" liburuaren inguruan. Juan San Martin liburutegian.

**DANBORRADA 19.00.-** Danborradarako entsegu, umeentzat.  
**20.00.-** Helduen entsegu. Beistegi eraikinean (Bittor Sarasketa kalean).

**TANTANEZ TANTAN 19.30.-** Tantanez Tantan ekitaldiaren aurkezpena. Arrate Kultur Elkartearen.





## erakusketak

– Maiatzaren 27ra arte

**JOSE BENITO RUIZ**en "Diálogos sobre composición" argazki erakusketa. Portalean.

**XAVIER FERRER CHUST**en "Grabarka" argazki erakusketa. Portalean.

**SANTOS MORENO VILLAR**en "Alma de Cuba" argazki erakusketa. Portalean.

– Maiatzaren 31ra arte

**31. ARGIZAIOLA LEHIAKETA**ko lanen erakusketa. *Klub Deportiboan.*

**DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEA.** *El Ambigú, Portalea taberna eta Untzagako jubilatuean.*

– Ekainaren 3ra arte

**JULIAN OCHOA**ren "Cuba" argazki erakusketa. *Arrate Kultur Elkarte.*

## Eguena 10

**IKASTEN 10.00.-** "Kolorea", Ricardo Aldamaren eskutik. Armeria Eskolan.

**NAGUSIEN HAMABOSTALDIA 11.00.-** Toka, petanka eta igel-toka txapelketa. Ipurua bolatokian.

**17.00.-** Mahai-jokoen txapelketa. Untzaga jubilatutxean.

**ESKOLARTEKO ANTZERKIA 15.00.-** "Amonaren Baserria", "Gaixo Tranpatiak", "Ikasle Berria" eta "Sendagile Eroa", San Andres ikastetxeko ikasleen eskutik. Hezkuntza Esparruan.

**EGO IBAR ZINEKLUBA 17.30 eta 21.00.-** "Medianeras" (Zuz: Gustavo Teretto). Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.

**PROIEKZIOA 19.00.-** "Islandia eta Groenlandia" Mila Gallastegi eta Asier Aranzabalen ikus-entzuzkoa. Portalean.

## farmaziak

**4, barixakua**  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)

**5, zapatua**  
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)

**6, domeka**  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)  
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

**7, astelehena**  
EGUNEZ Iraundegi (Sostotarren, 10)  
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)

**8, martitzena**  
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

**9, eguaztena**  
EGUNEZ Las Heras Larramendi (Calbetón, 19)  
GAUEZ Ibarondo (Zeharkalea, 2)

**10, eguena**  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)  
GAUEZ Mendinueta (Urkizu, 6)

**11, barixakua**  
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)

## ikastaroak

– **"Gaixotasun mentalarekin hobeto elkarbizitzeko"**.  
Izen-ematea: Agifes Gipuzkoako Familia eta Eri Psikikoan Elkarte (943474337) edo Gizartekintzan (943708440).

– **Ogia egiteko Tailerra.**  
Noiz eta non: *Maiatzak 12*, 09.00etatik 13.00era Portalean.  
Izen-ematea: Azataporrúa elkarte (Juan Gisasola kalean) eguazten arratsaldetan (30 euro).

– **Sukaldaritza natural eta energetikoa**  
Noiz eta non: *Maiatzak 5* ("Cómo llevar una alimentación equilibrada") eta *maiatzak 26* ("La alimentación y las emociones").  
Izen-ematea: Defibel Fibromialgia Elkarte (asoc.defibel@gmail.com), 678068959 (Ines) eta 695780058 (Jesús).

– **Lana bilatzeko ikastaroak.**  
"Eficiencia energética en las instalaciones de iluminación interior" (34 ordu), "Telefonía sobre IP (ToIP) asterisk" (12 ordu). Noiz eta non: *Maiatzaren 7tik aurrera*, Armeria Eskolan. Informazioa eta izen-ematea: 943203244 telefono zenbakian.

## telefono jakingarriak

SOS delai .....112  
Pegora .....010  
Udaletxea .....943 70 84 00  
Portalea .....943 70 84 39  
Udaltzaingoa.....943 20 15 25  
Mankomunitatea943 70 07 99  
Debegesa.....943 82 01 10  
KIUB .....943 20 38 43  
Epaitegia .....943 03 34 00  
Iberdrola .....901 20 20 20  
Naturgas .....902 12 34 56  
DYA Larrialdiak.943 46 46 22  
Gurutze Gorria..943 22 22 22  
Mendaro osp.....943 03 28 00  
Anbulategia.....943 03 25 00  
Torrekua .....943 03 26 50  
Errepideak .....902 11 20 88  
Ertzaintza .....943 53 17 00  
Eusko Tren .....902 54 32 10  
Pesa .....902 10 12 10  
Taxiak.....943 20 30 71  
.....943 20 13 25  
Alkohol.Anon. ..629 14 18 74  
Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DO-NOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salduko edo aldatuko nuke Bidebarrieta kalean. Handia, kanpora begira eta ganbararekin. Teila-tua eta fatxadak berritze prozesuan. Prezio interesgarria. Tel. 650-896485.

– Pisua salgai Estaziño kalean. 81 m<sup>2</sup>. Logela bi, egongela, sukaldetangela, komun bi eta trasteroa (8 m<sup>2</sup>). Igogailua. Guztiz berriztua eta altzariekin. Tel. 660-739563.

– Pisua salgai Eibar erdialdean (Eibariko Txikito). Logela bi, egongela, sukaldetangela, komun eta igogailua. 150.000 euro. Tel. 672-622774.

### 1.2. Errentan

– Hiru logelako pisua behar dut Eibarren. Tel. 652-532589.

– Oporretarako pisua alokagai Santonñan. Logela bi. Inguru lasaia, hondartzetatik gertu. Tel. 669-980932.

– Pisua alokagai Ubitxa kalean. 2 logela. Igogailua eta kalefakzioa. Sartzeko moduan. Tel. 685-732596.

– Pisua alokatuko genduz Ermuan edo Eibarren. Tel. 666-777837.

– Urki auzunean logela alokagai neska euskaldun batentzat. Sukaldetangela eta egongelara sartzeko eskubidearekin. Tel. 637-276278.

– Pisua alokagai Elgetan. Ia berria. 2 logela, egongela-jangela, sukaldetangela eta bi komun. Tel. 606-083992.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Fiat Ducato autokarabana salgai. 2004 urtekoa. 5-6 plaza. Egoera oso onean. Guztiz ekipatuta. 15.900 euro. Tel. 671-841563.

– Mobilhome salgai Iratzen (Nafarroa). 3 logela, egongela, sukaldetangela, komun, portxea eta lorategia. Ureztatze automatikoa. Prezio oso onean. Tel. 670-593605.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Lokala salgai Ubitxan. Kaletik sarriera zuzena. Argi instalazioa eta komunarekin. Tel. 617-688311. Maria.

– Lokala salgai Urkizu dorreetan. 85 m<sup>2</sup>. Prezioa adosteko. Deitu 13.00etik 16.00etara eta 20.00etik 22.00etara. Tel. 943-201727.

– Garajea salgai Asua-Errekan. Sarriera ona. Tel. 670-793312.

### 3.2. Errentan

– Garajea alokagai Abontzan. 2. pisuan, garbitegiarekin. Tel. 617-736527.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

### 1.2. Errentan

### 1.3. Konpartitzeko

### 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

### 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

### 3.2. Errentan

– Behaldea alokagai Ubitxan. 100 m<sup>2</sup>. Tel. 617-688311. Maria.

– Garajea alokagai. Tel. 617-688311. Maria.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 671-329852.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 670-821279.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-144954.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gauze ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 618-033602.

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko orduka. Tel. 625-814727.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-618198.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-278485.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 664-111706.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxekolanak egiteko. Tel. 690-925929 eta 943-531378.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, etxekolanak egiteko eta saltzaile jarduteko. Esperientzia. Tel. 636-419814.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxekolanak egiteko. Tel. 616-808319.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 686-617961.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 638-523922.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

### 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

### 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

### 6.2. Eman

### 6.3. Galdu/Aurkitu

### 6.4. Bestelakoak

– Emakume euskalduna eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 606-502567.

– Mutila eskaintzen da banatzaile jarduteko, nagusiak zaintzeko eta obretan lan egiteko. Tel. 600-084133.

– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 645-461600 eta 943-743638. Arrate.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 646-778839.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 634-887814.

– Klinikara laguntzailea eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 653-730945.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 648-619247.

– Neska eskaintzen da ileapaintzaile jarduteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-109323.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 632-910182.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 617-571210.

– Neska eskaintzen da ileapaintzaile jarduteko etxez-ete eta umeak zaintzeko. Tel. 662-204193.

– Neska euskalduna eskaintzen da ileapaintzaile lan egiteko. 11 urtetako esperientzia. Tel. 610-096417.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 660-164576.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 681-042214.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 618-827520.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 639-611454.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 634-782031.

– Neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 677-689227. Aitziber.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, sukaldetangela, kamarera jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-052084.

– Mutil arduratsua eskaintzen da tabernan lan egiteko. Esperientzia barran, jantokian eta sukaldetangela-jantokian. Tel. 686-052084 eta 943-257815.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 666-771151.

– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 617-844142.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbitzeko. Tel. 674-481945.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbitzeko. Erreferentziak. Tel. 628-924044.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbitzeko. Tel. 695-144954.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbitzeko. Tel. 671-329852.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbitzeko. Tel. 670-831279.

### 4.2. Langile bila

– Emakume euskalduna behar da asteleheneetik ostiralera, 09.00etatik 12.00etara, etxekolanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 671-555268.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Magisteritzako ikasleak LH eta DBHrako klase partikularrak ematen ditu. Tel. 685-704065 eta 673-600545.

– Euskara klaseak ematen dira azterketak prestatzeko eta perfillak eta EGA lortzeko. HABE-ren mailak. Tel. 620-608065.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Izotz-makina eta Lomi zukugailua salgai. Berriak. Tel. 676-753898.

– Bulego-materiala salgai (Herpesa etxekoa). Egoera onean. Tel. 692-714685.



**Ignacio  
Zuloaga  
Institutua**  
**EIBAR**



**Aurrematrikula Maiatzaren 2tik 11ra**

**Batxilergoak:** Arteak - Humanitateak eta Gizarte Zientziak - Zientziak eta Teknologia



Jardiheta 3 Eibar. Tel.: 943208349. Fax: 943206040. [www.ignaciozuloaga.net](http://www.ignaciozuloaga.net). E-mail: 012055aa@hezkuntza.net

# **LA SALLE AZITAIN** IKASTETXEA

2012-2013 ikasturterako eskaintza

**BATXILERGOAK (A eta D)**

**ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA / GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK**

**Badugu  
ikasteko  
leku bat  
zuretzat!**

**La Salle**  
Eibar



943 121 698

**maiatzaren  
2tik 11ra**

## TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

**Materia arriskutsuak / C.A.P.**

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko  
**nazioarteko** agentzia **ziurtagiriak**  
lortzeko ikastaroak



**T. Etxebarria, 7**

**Tel. 943 70 23 84**

**Tel. 943 70 23 78**



**Irribarreak**  
gaztetu egiten gaitu



**Inplante eta**  
**Hortz-Estetikan**  
adituak

Bista Eder Hortz Klinika  
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75